

3. gaia

Izen sintagmaren azterketa (3)

3. Izenordainak 1

3.1. *Pertsona izenordainak 1*

3.2. *Izenordain zehaztugabeak 3*

3.2.1. *Nor/zein eta zer 3*

3.2.2. *Galdetzailleetatik eratorritako izenordain zehaztugabeak 4*

3.3. *Izenordain bihurkariak eta elkarkariak 6*

3.3.1. *Bihurkariak 6*

3.3.2. *Elkarkariak 7*

3. Izenordainak

• Benetako kategoria baino gehiago, IS oso bat ordezkatzeko *funtzioa* bete dezaketenei esaten zaie *izenordain*; batzuk determinatzaile dira, beste batzuk izenak dira, eta, azkenik, hirugarren batzuk sintagma osoak dira.

3.1. Pertsona izenordainak

• Gaur egungo euskararen hauek dira pertsona-izenordainak:

(130)		sing	plurala
	1. pertsona	NI	GU
	2. pertsona	HI, ZU	ZUEK
		<i>berori</i>	<i>beroriek /eurok</i> (errespetuzkoak, oso formalak)

(131) berorrek ikusiko du (cf. usted verá)

► garai bateko euskararen, badirudi gauzak honela zirela, adizkien egitura lekuko:

(132)	1. pertsona	NI	GU
	2. pertsona	HI	ZU

(133)	a. hi {ikusiko hau, habil}	b. gu {ikusiko ga- <i>it</i> -u, gabil- <i>tza</i> }
	c. zu {ikusiko za- <i>it</i> -u, zabil- <i>tza</i> }	d. zuek {ikusiko za- <i>it</i> -u- <i>zte</i> , zabil- <i>tza-te</i> }

b. Ez da zer ekarri barberurik; *neu* naiz barberurik asko (P. Abarka).

b. Zenbait esapidetan ere bai:

(138) a. Hobeto egingo zenuke zeuk *ere* lo egingo bazenu.

b. Neuk *behintzat*, ez dut holakorik entzun

c. *ni neu* ez nintzateke istilu horretan sartuko.

c. Ekialdean (X- eta X-k bakarrik edo esan nahi luke)

(139) Nihaurk esan diot.

d. Argiago omen dago noiz ez diren forma indartuak erabili behar:

(140) a. Zu, adiskide, zatoz hona / ? Zeu, adiskide, zatoz hona

b. Ez zara nirekin haserretu, ezta? / ? Ez zara neurekin haserretu, ezta?...

c. Nor zara zu? / ? Nor zara zeu?

3.2. Izenordain zehaztugabeak

3.2.1. *Nor/zein eta zer*

(141) nor izan da hemen? Andoni, Jone, otsoa, zaldia...

(142) a. Ni ez naiz nor hori egiteko

b. Jendea, nor zaldiz, nor oinez, etxera itzuli zen.

c. Nor bere etxera joan zen. (“bakoitza, norbera”)

(143) Zein izan da hemen? ...

(144) Zer erosi duzue? Etxea, kafea, ...

(145) a. ze(r) ordu da?

b. ze(r) etxe erosi duzue?

● **zertzuk/zeintzuk/nortzuk**

(146) a. nortzuk/zertzuk ikusi dituzu?

b. Zertzuk liburu erosi dituzu?

[c. Zer liburutzu erosi dituzu?]

3.2.2. Galdetzaileetatik eratorritako izenordain zehaztugabeak

• norbait / zerbait

(147) {Norbait, zerbait} ikusi dut

(148) a. matematika zerbait ikasia da hori.

b. zerbait matematika ere ikasi izan du horrek.

c. Norbait ezaguna aurkeztu nahi dizut

b. Zerbait berezia egiteko eskatu digu.

► edozein galdetzailek onartzen du *bait* atzizkia: *noizbait, nonbait, nolabait...*

• zer edo zer/ nor edo nor; bat edo bat/ baten bat

(149) a.. nor edo nor etorriko da

b. zer edo zer prestatu beharko dugu.

► emankorra da beste galdetzaileekin: *noiz edo noiz, non edo non, nora edo nora...*

► Hauen baliokideak dira *baten bat, bat edo bat*:

(150) nor edo nor etorriko da = baten bat etorriko da = bat edo bat etorriko da

• zernahi/edozer, edonor/nornahi...

(151) a. Zernahi egin dezakezu, ez dit inporta

b. Edozer gerta liteke, edonor ager liteke.

(152) a. Zernahi gezur esan du horrek ("anitz")

b. Edozer gauza jaten du honek (cf. edozein gauza)

► Hau ere emankorra: *noiznahi, nonahi, zeinahi, nolanahi...*

► **Nornahi = nor + nahi...**

- (153) a. Nork nahi esan lezake... (joera zaharra)
b. Nornahik esan lezake... (berria)

● **inor/ ezer, deus**

a. *partitiboaren testuinguru berdinetan erabiltzen dira* (baiezkoak aldera batera utzita):

- (154) a. Ez dut ezer egin.
b. Nekez lortuko duzu ni inoiz haserretzea.
c. Ezer ikusi bazuen, ez zuen aipatu.
d. Ezer gertatuz gero, deitu.
e. Ezer gertatu al da?
f. Jonek bakarrik lortu lezake inor konbentzitzea
g. Sinesgaitza litzateke bulego honetan inor harrapatzea.
h. Jon onegia da inor nahita mintzeko.

baina

- i. * Bada(go) inor munduan!!

b. ezer, inor... ≠ zerbait, norbait...

- (155) a. Deitu du inork?
b. “ba al dago pertsonarik deitu duenik?”

- (156) a. Norbaitek deitu du ? (igurikapena: norbaitek deitu izana)
b. “egia da norbaitek deitzearena ala ez?”

c. Inor eta kideek beste-ren balioa izan dezakete (mendebalean bereziki):

- (157) a. Errua, zuretzat, beti da *inorena*. (= beste batena)
b. *Inoiz* ikusi izan ditut horiek elkarrekin hizketan (= bestetan)

d. *inor/ ezer* saila galdetzaile guztietara zabaltzen da: *inoiz, inon, inola, ezein, inoiz...*

Iparraldeko formak: *nehoiz, nehon, nehor,*

e. Deus = ezer

- (158) a. Ez da ezer (ere) gertatu
b. ez da deus (ere) gertatu

f. batere

- (159) a. Jonek ez du batere ikasten.
b. Jon ez da batere ikastuna

● norbera / bakoitza / batbedera

- (160) a. (bertsolari) *bakoitzak* egin dezala egin behar duena.
b. *norberak* egin dezala egin behar duena / poesian *norberak* bere hizkera du.
c. *batbederak* egin dezala egin behar duena.
d. nori berea da gizalegea, nor bere etxera joan zen.

3.3. Izenordain bihurkariak eta elkarkariak

3.3.1. Bihurkariak

● {neure, heure, bere, geure, zeure, zeuen, beren} burua

(161) neure burua asko maite dut eta zuk zeure burua ere bai.

- (162) a. Mirandek bere burua hil zuen (Mirande = bere burua)
b. * Mirandek uste zuen bere burua oso poeta ona zela.

- (163) a. Zeuen buruen etsaiak zarete zuek.
b. Geure buruak asko maite ditugu = geure burua asko maite dugu

- (164) a. egunero ikusten naiz ispiluan
b. egunero ikusten dut neure burua ispiluan

● **genitibo bihurkariak: neure, heure, bere, geure, zeuen, beren**

(165) *Aresti-Linschmann legea*

Erabil bedi genitibo bihurkariaren forma egokia baldin eta IS bihurkari horrek perpausean pertsona eta numero bereko NOR, NORI edo NORK sintagma badauka

► Idazle klasikoek bete egiten dute lege hau eskuarki:

- (166) a. (nik) *neure* etxean oso gustura lan egiten dut.
b. Nahi baduzu, oraintxe eramango zaitut *zeure* etxeraino.
c. Ainhoari *bere* lana itzuli nion.

... baina gaurko euskaran ez zaio eusten, Iparraldean eta hirugarren pertsonan ez bada. Hots, honakoak normalak dira:

- (167) a. Nik nire etxean oso gustura lan egiten dut.
b. Oraintxe eramango zaitut zure etxeraino

● **3. pertsona: *bere* ≠ *beraren*, *haren***

Euskara klasikoan eta gaur egun ere iparraldean *bere* izenordaina definizioz da bihurkaria:

- (168) a. Miren bere etxera joan da (= Mirenen etxera)
b. Miren haren etxera joan da (= Mirenena ez den batera)
c. Miren beraren etxera joan da (= Mirenena ez den batera)

3.3.2. Elkarkariak

● **elkar**

- (169) a. Haur bi horiek elkar maite dute
b. Andoni eta Miren elkarren ondoan jesarri dira.

● **bata bestea/bertzea**

- (170) a. Peiok eta Mirenekj bata(k) bestearenj txakurrak ikusi dituzte
b. * Peiok eta Mirenekj elkarrenj txakurrak ikusi dituzte
- (171) a. Gero ikusiko gara = Gero ikusiko dugu elkar
b. Elkar hil zuten ≠ hil ziren